


Xabier ezkutatutako  
pertsonaiaren bila dabil...

Etorkizuneko pertsonaia



ALBOAN



Compañía de Jesús



V CENTENARIO  
DEL NACIMIENTO DE  
FRANCISCO DE JAVIER

## Xabier ezkutatutako pertsonaiaren bila dabil... etorkizuneko pertsonaia

**Kaixo guztioi,**


nire izena Frantzisko da baina denek Xabier deitzen didate,  
izen hori baitu nire jaiolekuak. Bai, 1506an jaio nintzen, Nafarroako  
Erreinuko Xabier herriko gaztelu handi batean.

Nire gurasoen izenak Jon eta Miren dira eta 2 anaia eta 2 arreba ditut: Mikel, Jon,  
Matxalen eta Ane.

Nire bizitzan asko bidaiatu dut eta pertsona asko ezagutu ditut; haiengandik  
laguntasunari, elkartasunari, justiziarri eta abarri buruzko gauza asko ikasi dut. Orain, zuekin  
partekatu nahi ditut horiek. Abentura bat hasi dut, eta zuek bilaketa horretan lagun  
diezadakezue; zenbait arrasto ditut, baina oraindik ez dut bilatzen ari naizena aurkitu:

ezkutatutako pertsonaia,

***etorkizuneko pertsonaia***





Jostailu bat zirudien arren nola  
erabili ez nekien pieza bat aurkitu  
nuenean hasi zen guztia...



Gainera oinatz  
batzuk aurkitu  
nituen





Piezak elkartu genituen eta lupa bat  
montatu genuen!

Oinatz haiek pertsona batenak ziren; horiek  
jarraitzen hasi ginen. Guztion artean lupa bat egina genuen  
eta elkarrekin oinatzetan atzetik joan ginen. Pertsonaia  
misteriotsu haren lehen arrastoa genuen.



**Etorkizuneko pertsonaiak:  
taldean lan egin du;  
guztion artean gehiago  
egin dezakegu.**



Dagoeneko ni ezagutzen nauzuenez, orain nire lagunak aurkeztu nahi dizkizuet: bosten artean pertsonaia misteriotsua bilatzen hasiko gara.

Kaixo, **Kepa** naiz. Nire kolorerik gustukoena berdea da, eta trebea naiz pilotan jokatzeko.



Kaixo, ni **Magdalena** naiz. Oso ongi pasatzen dut gainerakoekin jolasten, eta oso ongi marrazten dut.



Ni **Inazio** naiz. Gustuko dut liburuak irakurtzea, eta trebea naiz ipuinak idazten.



Ni **Ana** naiz. Animaliak gustuko ditut eta, orobat, liburuak irakurtzea, Ignaziok bezala.







Egun batean Inazio gaixotu egin zen, eta ohean aspertuta egongo zela pentsatu genuenez, bere etxeraino joan ginen bisitan, barre pixka bat egin zezan.



Ikusi... oinatz berdinak jarrai ditzagun!





Dagoeneko bigarren arrastoa genuen,  
bilaketa gero eta interesgarriagoa zen...

Hau mezu sekretua da,  
deszifratu egin behar dugu!



Etorkizuneko pertsonaia:

B\_\_atzen ari \_\_ar\_n  
p\_r\_\_o\_aia b\_re  
ing\_r\_ko p\_rtso\_engatik\_\_  
\_rd\_\_at\_\_n \_a





Bagenekien oinatz haien atzetik joan behar genuela. Eta oso urrun eraman gintuzten. Zorionez, nik oso gustuko dut bidaiatzea. Oinatzek Mozambiqueko Josina-raino eraman gintuzten...



Kaixo, urrutitik gatoz eta oinatzek zureganaino ekarri gaituzte. Eta zu, nora zoaz?



Kaixo, nire izena Josina da. Putzura noa ur bila, nire familiak janaria presta dezan. Gaur egun berezia da eta oilaskoa jango dugu piri-piri saltsarekin, gurekin bazkaldu nahi duzue?

Zer izango ote da piri-piri saltsa?







Oinaten atzetik bidaiatzen eta jende desberdina ezagutzen jarraitu genuen... oraindik pistak falta zitzaizkigun etorkizuneko pertsonaia nor den asmatzeko...

Urrunetik zatoztela iruditzen zait, neke-aurpegia duzue. Eser zaitezte hemen nire amonaren alboan, eta har itzazue lassi-a eta panipuri batzuk, indarberritzen lagunduko dizuete.

Eta zer dira horiek?

Lassi-a bufalo-esnearekin egindako edaria da eta panipuria saltza pikante batez betetako kroketa moduko batzuk dira.





Zertan ari zara hemen, mendian?

Ni nire familiak dituen ardiak bazkatzera ateratzeaz arduratzen naiz. Nahi duzue txigortu pixka bat?



Eta zer da hori?

Ilarrez egina dago.





Zergatik eraman gaituzte oinatzek hain leku desberdinetara? Oso ohitura desberdinak dituzten pertsonak ezagutu ditugu toki horietan. Zer arrasto ematen digu horrek etorkizuneko pertsonaiari buruz?



**Etorkizuneko pertsonaiak:  
pertsonak desberdinak izan  
daitezkeela baina  
guztiengandik ikas  
dezakegula daki.**






Oinatzak han geratzen ziren, ez zuten inorantz jarraitzen; beraz, oraindik beste arrastoren bat aurkitu behar genuela ondorioztatu genuen...

Baina badaude, orobat, alde batzuk: haur guztiak ezin dira eskolara joan, leku batzuetan ez baitaude behar adina eskola edo daudenak urrunegi baitaude.


Zuen eta gutako bakoitzaren errealitatearen artean aldeak daude baina, orobat, gauza asko ditugu komunean. Guztiok gustuko dugu lagunekin egotea, gauzak ikastea, eskolara joatea.



Beste leku batzuetan irakasleak falta dira, eta ikasgela bakoitzean hainbeste haur daude non ezinezkoa baita ezer ikastea.



Baina ez gara besoak  
antxumatuta geratzen, zerbait egiten saiatzen  
gara eta jende askok gauza bera egiten du;  
**HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDUKO KANPAINA**n  
parte hartzen dugu.



Guztiok pixka bat saiatuz  
gero, gaur egun behar bezala ez  
dabiltzan gauzak hobetu ditzakegula  
sinesten dugu.

## HEZKUNTZAREN

Aldeko Munduko Kanpaina

*Urtero munduko haurrek beren ahotsak eta ahaleginak batzen dituzte, agintariei pertsona guztiak eskolara joan ahal izan daitezen ahaleginak egin ditzaten eskatzeko.*





Gero eta gutxiago falta zitzagun etorkizuneko pertsonaia aurkitzeko; Josinak, Galpeshek eta Deliak esan zigutenak lagundu behar zigun...



Arrasto guztiak elkartuz, etorkizuneko pertsonaia ezaugarri hauek dituela ohartzen gara:

- Taldean lan egiten du.
- Bere inguruko pertsonaz arduratzen da.
- Pertsonak oso desberdinak izan daitezkeela baina guztiengandik ikas dezakegula daki.
  - Guztiontzat hobea den munduarekin egiten du amets

**Etorkizuneko pertsonaia:  
guztontzat hobea den  
munduarekin  
egiten du amets.**

Bilatzen ari ginen  
pertsonaia, etorkizuneko  
pertsonaia, aurkezten dizuet:



Abentura honetan  
niri lagundu izana gustagarri izan  
zaizuela espero dut; eta mundu hobea  
bat eraikiko duzuen hiritar bihurtuko  
zaretelakoan nago! Guztiak ondo bizi  
eta zoriontsu izan gaitezkeen  
mundu bat.